

# BIGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B2 maila

## IDATZIZKO AZTERKETA

### [ A eredua ]

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.
- **2h 5 min** dituzu azterketa egiteko.

	PROBEN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNTUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNTUAZIOA (GUTXIENEZ)
IRAKURMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> <li>Hiru ariketa dauzka. Hirurak egin behar dira.</li> <li>Hiru irakurgai eta guztira 34 item.</li> <li>Lehenengo eta bigarren ariketetan item bakoitzak 0,8 puntu balio du eta hirugarrenean 0,4 puntu.</li> <li>Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko.</li> <li>Testuen luzera guztira: 1.500 hitz gehienez.</li> </ul>	50 min	20	10
IDAZMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> <li>Bi ariketa ditu. Biak balio berekoak (15 puntu). Biak egin behar dira eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira.</li> </ul>	75 min	30	15

- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketak** horretarako eman zaizkizun **aparteko orrietan**.
- Azterketa-**koaderno hau** ez da jasoko, **zuzetzat da**.

## 1. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderai.

**Aukeratu erantzuna.** Bakarra da zuzena.

## ZERUKO ESTALKIRIK BERRIENAK

Hodei guztiak ezberdinak dira. Mota berekoak izan arren, ez daude bi hodei erabat berdin. Fauna eta landarediaren moduan, hodeiak genero, espezie eta subespezietan sailkatzen dira. Sailkapen hori Nazioarteko Hodeien Atlasean biltzen bada ere, 1987az geroztik eguneratu gabe zegoen. Hala, Munduko Meteorologiaren Erakundeak Atlas berria aurkeztu berri du, Nazio Batuek lehendik ezagunak ziren baina sailkatu gabe zeuden hamabi hodeiri izena jarri dietela baliatuta. «Eguneratzea beharrezkoa zen; urte asko zeramatzaten atlasean aldaketarik egin gabe», esan du Jose Antonio Aranda Euskalmeteko Meteorologiaren arduradunak.

Hiru multzo nagusitan banatzen dira hodeiak: maila baxuko hodeiak, 0-2.000 metro bitartekoak; maila ertainekoak, 2.000-6.000 metro bitartekoak; eta maila altuko hodeiak, 6.000 metrotik gora osatzen direnak. Era berean, hodeiak hamar genero nagusitan banatzen dira. Batetik, *Stratus*, *Nimbostratus*, *Cumulonimbus*, *Cumulus* eta *Stratocumulus* generoak maila baxukoak dira. Bestetik, *Altostratus*-ak eta *Altostratus*-ak maila ertaineko gisa sailkatzen dira. Azkenik, maila altuko hodei generoen artean daude *Cirrostratus*-ak, *Cirrocumulus*-ak eta *Cirrus*-ak.

Hodeien Nazioarteko Atlasak, baina, ez du genero berririk txertatu eguneratzean: «Hodeiak sailkatzeko irizpide berriak eta hodei bereziak aurkitu dira, baina ez dute genero berririk izendatu», dio Arandak. Haatik, espezie berri bat aurkitu dute: *Volutus* izeneko hodeia, Australian maiz sortzen dena. Hodei «berezia» dela dio Arandak: «Ozeano Bareko hainbat tokitan sortu ohi da, eta arrabol horizontalaren itxura hartzen du. Azkar mugitzen da, eta kilometro askotako luzera izaten du normalean».

Horrez gain, hodei-espezieak ezberdintzen laguntzen duten bost ezaugarri berri ere aurkitu dituzte: *Asperitas* edo olatuak, *Cavum* edo zuloak, *Cauda* edo kastore buztana, eta *Fluctus* eta *Murus* horma hodeiak. «Hodei mota bati informazio gehigarria ematen dioten ezaugarriak dira. Esaterako, *Asperitas* oso berezia da. Urte asko zeramatzaten hodei hau izendatzeko

eskatzen. Hodeiaren azpiko aldeak olatuen forma dauka», esan du Arandak.

Bestalde, bost hodei berezi aurkitu dituzte: *Cataragenitus*, *Flammagenitus*, *Silvagenitus*, *Homogenitus* eta *Homomutatus*. Genero, espezie eta subespezien sailkapenean sartuta baldin badaude ere, sorrera berezia dutela dio Arandak: «Sute handi batek sortutako hodeiak izan daitezke, edo kutsadurak eragindakoak, adibidez». Zehazki, *Cataragenitus*-ak ur jauzietan sortzen diren hodeiak dira, *Flammagenitus*-ak sute handietan sortzen dira, eta *Silvagenitus*-ak basoetako hezetan handiaren ondorio dira. Horrez gain, *Homogenitus*-ak hegazkinen arrastoak sortutakoak dira, eta *Homomutatus*-ak, berriz, hegazkinek eraldatutako hodeiak.

Gainera, eguraldia iragartzeko baliagarriak dira hodeiak. «Hodeiei esker jakin dezakegu zergatik dagoen eguraldia egoera horretan. Ez hori bakarrik, hurrengo orduetan zer gerta daitekeen jakiten ere laguntzen dute. Fronte hotz edo bero bat etorriko den jakin daiteke hodeiak aztertuta», esan du Arandak. Euskal Herrian pertsona asko erakartzen ditu meteorologiak. Euskal Herrian zaletasuna zergatik hedatu den argi du Roberto Okariz meteorologoak: «Komunitate zabal bat gara. Meteorologia gustuko dutenentzat, oso eremu ona da gurea. Denetatik izaten dugu; ez gara aspertzen».

Arnaitz Fernandez Fisika ikasten ari da Euskal Herriko Unibertsitatean, eta iritzi berekoa da: «Egun batetik bestera, eguraldia asko aldatzen da Euskal Herrian, eta horrek jendea erakartzen du. Murtzian, esaterako, zaletasun hau ez dago hain zabaldua». Arandak dio mota guztietako fenomeno meteorologikoak izateaz gain, Euskal Herrian mota guztietako hodeiak ikus daitezkeela: «Izendatuta dauden hodei guztiak edo ia guztiak ikus daitezkeela esango nuke. Eguraldia asko aldatzen da hemen, eta horrek ere zerikusia du hodeiekin. Era berean, ez daukagu hemengo berezko hodeirik, edo bakarrik hemen ikus daitekeen hodeirik».

**BERASTEGI, I. Berria, 2017ko apirilaren 4a. Egokitua**

## 1. ariketa. Aukeratu erantzuna

1. **Zer dio testuak Nazioarteko Hodeien Atlasaz?**
  - a) Lehen ezagutzen ez ziren hamabi hodei izendatu dituztela.
  - b) 1987tik aurrera bertan biltzen direla hodeiak sailkatuta.
  - c) Berdinak diren hodeiak bildu dituztela azken eguneratzean.
2. **Zer dio Arandak azken eguneratzeaz?**
  - a) Orain arte erabilitako irizpideak ez direla aldatu.
  - b) Genero berriren bat derrigorrean izendatu dutela.
  - c) Hodei berezi batzuk topatu dituztela.
3. **Nolakoa da *Volutus* izeneko hodeia?**
  - a) Aurkitu duten genero berriko hodei luzea.
  - b) Arin mugitzen den espezie berriko hodeia.
  - c) Ozeano Bareko leku berezi batean sortutakoa.
4. **Zer esan daiteke hodeien ezaugarriei buruz?**
  - a) Hodei motei informazioa gehitzen dietela.
  - b) Ez dutela ezaugarri berririk txertatu eguneratzean.
  - c) Espezie guztietan ezaugarri berberak daudela.
5. **Zer azaltzen du testuak aurkitutako hodei bereziez?**
  - a) Bostek jatorri berezia dutela.
  - b) Guztiak sute handi batek sortutakoak direla.
  - c) Denak gizakiok eraldatutakoak direla.
6. **Zer jakin ahal dugu hodeiei esker?**
  - a) Fronteak aztertuta, hotz ala bero egingo duen.
  - b) Epe luzera eguraldiarekin zer gerta daitekeen.
  - c) Daukagun eguraldiaren zergatia eta iragarpena.
7. **Zergatik erakartzen ditu hemen meteorologiak pertsona asko?**
  - a) Eguraldia oso aldakorra delako.
  - b) Mota bereziko fenomenoak daudelako.
  - c) Murtzian bezala, zaletasun handia dagoelako.
8. **Zer dio Arandak hemen ikusten diren hodeiez?**
  - a) Batzuk baino ez direla hemen ikus daitezkeenak.
  - b) Eguraldiari lotuta dagoela hodeiak ikusteko aukera.
  - c) Tamalez, ezin direla izendatuta dauden guztiak ikusi.

## 2. ariketa

Ondorengo testuari zatiak falta zaizkio. Hurrengo orrian dituzu falta diren testu zatiak.  
Sartu **testu zatia** dagokion **hutsunean**.  
Markatu testuko hutsuneak (9, 10, 11...) betetzeko zein diren galdera egokienak (A, B, C...).

**Testu zati bat sobera dago.**

## AUTO ELEKTRIKOA

Autoa aldatzeko asmoz bazabiltza, baliteke zalantza izatea errekontza bidezko bat aukeratu (gasolina edo diesela) edo auto elektriko bat. Bi horien tartean, dena den, badira bestelako aukera batzuk ere, adibidez, auto hibrido bat erostea edo gas bidez dabilena. Hautatu aurretik, kontuan hartzea zer-nolako erabilera emango diogun da adituen gomendioa. Hori dela eta, hirirako auto bat nahi baduzu, aukera ona izan daitezke elektriko edo hibrido. **9**

Auto elektrikoen inguruko eskaria asko handitu da azken urteetan, eta handitzen eta handitzen ari dira ibilgailu mota horien matrikulatzeak. Espainiako estatuan 40.000 auto elektriko daude gaur egun. **10** Adituek uste dute 2020. edo 2023. urtetik aurrera etorriko dela auto elektrikoaren edo hibridoaren egiazko booma. Une honetan arazoetako bat da karga-lekuak urri samarrak direla, batez ere, hiri handi batetik irteten zarenean. **11** Gaur egungo autoek 400 kilometro egin ditzakete, eta sei eta zortzi ordu artean behar izaten dituzte bateriak betetzeko. Gainera, auto elektrikoak bidea egiteko, eskaria behar da. **12** Norvegian, berriz, elektriko da bost autotatik bat.

Hori guztia kontuan hartuta, auto-ekoizleek diote ohiko erregaiekin dabilzan autoak ez direla deabrutu behar. **13** Dieselaren beheraldiak, ordea, kezka sortu du sektorean; eta gainbehera horren errua, neurri batean, auto zaharren isuri kutsatzaileen ospe txarra da. Automobil eta Kamioi Ekoizleen Espainiako Elkarteak (Anfac) egindako kalkuluen arabera, 12 urte baino gehiago dituzten 400.000 diesel desagertuko balira errepideetatik, % 80 murriztuko liriteke gas kutsatzaileen isuriak.

Baina eztabaida horren gainera, ezin da ahaztu arauak daudela. **14** Ekoizleen esanetan, gaur egun lantegietatik ateratzen diren ibilgailuek betetzen dute muga hori, baina ez ibilgailurik zaharrenek. Dieselak eta gasolinazko autoak bidegurutze batean daude. Parisko Hitzarmenak dio (klimate aldaketaren aurkakoa da) 2050. urterako % 80 eta % 95 artean murriztu behar direla berotegi efektuko gasen isuriak. Eta Europako gobernuak erregai fosilekin dabilzan ibilgailuei begira hasi dira. **15** Espainiak, oraingoz, ez du egin halako apusturik. Baina horrek ez du eragotzi zenbait hiritan neurriak hartzen hastea. Madrilak, adibidez, poluzio-egoera batzuetan galarazi die zirkulazioa 2000. urtea baino lehenagoko gasolina autoei eta 2006a baino lehen matrikulatutako diesei.

Auto hibridoaren sailean, egia esan, ia denetarik sartzen da: motor teknologia iritsi berrien zati handi bat, auto elektrikoak, baita gas natural konprimatuarekin edo petrolioaren gas likidotuarekin dabilzanak ere. Teknologia konbinatzen dituzte. Gasarekin dabilzan ibilgailuak ere aukera bat izan daitezke mugikortasun jasangarrirako, batez ere, ibilgailu astunetan (kamioiak eta autobusak). Prezioa dute alderdi on bat: dieselek edo gasolinazkoek baino 1.500 euro gehiago balio badute ere, elektrikoak baino askoz merkeagoak dira. **16** Mugikortasunerako Gas Naturalaren Iberiar Elkartearen arabera, Espainian 8.400 ibilgailu inguru dabilza gas natural berriztagarriarekin eta 50.000 inguru petrolioaren gas likidotuarekin.

*Consumer aldizkaria, 2018ko abendua. Egokitua*

**2. ariketa. Txertatu testu zatia**

- A. Eta gasarekin dabiltzanak aintzat hartzea ere komeni dela diote, merkeagoak izateaz gain, gasolinazkoek edo dieselek baino gutxiago kutsatzen baitute.
- B. Gainera, kontuan hartu behar dugu gutxiago kontsumitzen dutela, erregaia merkeagoa dela eta isuriak murriztu egiten dituztela.
- C. Horien artean, baditugu erabat elektrikoak, bateriarekin mugitzen direnak, eta entxufe bidezko hibridoak, erregaiarekin dabilen motorra eta motor elektrikoa dutenak.
- D. Dena den, ezin da ahaztu auto-ekoizleak auto elektrikoen alde egiten ari diren apustua eta, horretarako, ikerkuntzan inbertitu duten dirutza.
- E. Frantziak 2040. urtean jarri du muga eta hortik aurrera ezingo dira saldu; Norvegiak eta Alemaniak ere bide beretik jo dute.
- F. Baina erabilera mistoa, hirian eta errepidean, eman nahi izanez gero, agian hobe izango litzateke betiko aukerarekin gelditzea, errekontza bidezkoarekin alegia.
- G. Estatuan oraindik nahiko txikia da, ez da % 0,5era iristen, eta zifra horrekin, mendebaldeko herrialdeen azken lekuetan dago.
- H. Europako Batasunak gehienez ere 168 miligramo nitrogeno oxido (NOX) onartzen ditu kilometro bakoitzeko dieseletan.
- I. Auto-markak, dena den, gogor ari dira lanean batería berriak sortzeko, gero eta autonomia handiagoa izango dutenak eta azkarrago kargatuko direnak.

■ **Idatzi zenbakiari dagokion letra ondoko laukietan, eta ez ahaztu erantzun-orrira pasatzea:**

<b>Hutsuneak</b>	<b>9</b>	<b>10</b>	<b>11</b>	<b>12</b>	<b>13</b>	<b>14</b>	<b>15</b>	<b>16</b>
<b>Testu zatiak</b>								

<b>Soberakoa</b>	
------------------	--

**Soberako aukera hau ez da jaso behar erantzun-orriran.**

### 3. ariketa

**Hutsuneak bete.** Testutik zenbait hitz ezabatu ditugu. Erantzun-orrian aukera ezazu zenbaki bakoitzari dagokion hitza.

## EMAKUMEENGANAKO ERASOAK SAIHESTEKO APLIKAZIOA

Emakumeenganako eraso sexistak ekiditeko aplikazioa martxan jarri dute Bilbon. Aplikazio honen bidez, emakumeek Udaltzaingoari abisua bidaltzeko aukera izango dute arrisku egoeraren batean daudenean; **17**, botoi bat sakatzearekin nahikoa izango da koordinazio zentroak abisua jasotzeko, telefono deirik egin gabe. Aplikazioa APP store bidez deskargatu daiteke **18** eta, nahiz eta hasiera batean emakumeentzat pentsatuta dagoen, etorkizunean herritar guztientzat izango da, herritarren segurtasuna **19** helburuz.

Bilboko Udala iazko urtearen amaieran hasi zen aplikazio mugikor hau lantzen, **20**, Bilboko emakumei segurtasuna emateko erasorik egonez gero. Aplikazioa Bilboko ezaugarrietara egokituta dago. Horretarako, indarkeria matxista jasan duten emakume talde batek eta emakumeen **21** batzuek lagundu dute azken probetan. Aplikazioaren helburua herritarrei segurtasun handiagoa ematea da, **22**, emakumei. Probak egin ondoren, aplikazioa publikoa da eta nahi duten guztiek jaitsi ahal izango dute. **23**, hau ez da jaietarako soilik sortutako aplikazioa, herritarrei Udaltzaingoarekin **24** kontaktatzeko aukera emango die. Aplikazioa Udaltzaingoarekin kontaktatzeko dauden beste kanaletara gehitzen da, adibidez, 092 telefono-zenbakira.

Aplikazioa erabili ahal izateko, datu pertsonalak sartu behar dira **25** telefono mugikorra geolokalizatzeko. Aplikazioaren bitartez, berehala abisatzen da eta Udaltzaingoaren esku-hartzea modu automatikoan jartzen da **26**, mugikorrak erakusten duen lekura joateko. Horixe da aplikazio honen **27** bat, berehalako abisua deirik egin barik. **28**, eraso jasaten ari den pertsonak errazago eman dezake abisua.

Aplikazio honek hiru funtzionaltasun dauzka. Lehenengoa, *eraso bat jasaten ari naiz*, larrialdietako botoia da, sakatzen duenak berehalako seinale bat bidaliko dio Udaltzaingoari bere geolokalizazioarekin. Horri esker, agenteak laguntza ematera joan ahal izango dira azkar batean. Bigarrena, *salatu eraso bat*, edozein indarkeria-ekintza ikusten duenak salatu egin dezake eta alerta bat bidaliko zaio poliziarri esku-hartzeko. Alerta horretan erasoaren **29** geolokalizatzen da. Hirugarrena, *etorri nirekin*, alde aurretik, norbere kontaktuetan adierazi behar da nor izango den laguntzailea. Erabiltzailea etxera doan bitartean, laguntzaileak mapa birtual batean ikusiko ditu haren **30**. Uneren batean honek erabiltzaileak ez duela aurrera egiten ikusten badu edo bidetik **31** dela, Udaltzaingoari deitu ahal dio.

Aplikazioaren lehen fasean, Bilboko Aste Nagusian, lortutako emaitzak aztertuko dira. Gero, herritar guztiengana **32** nahi da, arriskuan egonez gero, edo eraso bat ikusiz gero, abisatzeko aukera izateko. Horrez gain, **33** sartu nahi dira, adibidez, eskumuturreko bat erabiltzea telefonoko aplikazioarekin batera.

Segurtasunaren aldeko itunean jaso ziren neurrietako bat da honako hau, Bilboko Udaleko alderdi politiko guztiek **34** zutena bilbotarren prebentzioko eta segurtasuneko zerbitzuak bermatzeko.

*Deia, 2018ko abuztuaren 1a. Egokitua*

**3. ariketa. Aukeratu hutsuneak betetzeko hitz egokia**

17. a) behintzat  
b) izan ere  
c) dena den  
d) halaber

18. a) ezinbestez  
b) sobera  
c) jadanik  
d) espresuki

19. a) mugatzeko  
b) sakontzeko  
c) bermatzeko  
d) murrizteko

20. a) hain zuzen ere  
b) berriz  
c) hala ere  
d) azken finean

21. a) sailburu  
b) topagune  
c) lagin  
d) elkarte

22. a) edonola ere  
b) batez beste  
c) batez ere  
d) era berean

23. a) Gainera  
b) Harrezkero  
c) Alabaina  
d) Bestalde

24. a) batera  
b) zuzenean  
c) zeharka  
d) lotuta

25. a) interesdunaren  
b) arduradunaren  
c) onuradunaren  
d) harpidedunaren

26. a) auzian  
b) abian  
c) parean  
d) enkantean

27. a) bitartekoetako  
b) gabezietako  
c) balioetako  
d) eragileetako

28. a) Horrela  
b) Bestela  
c) Halaber  
d) Berez

29. a) sailkapena  
b) iraupena  
c) ekoizpena  
d) kokapena

30. a) hutsuneak  
b) gogoetak  
c) eskariak  
d) urratsak

31. a) gerturatu  
b) aldendu  
c) banatu  
d) sakabanatu

32. a) astindu  
b) zatitu  
c) agindu  
d) zabaldu

33. a) hobekuntzak  
b) iruzkinak  
c) aurrekontuak  
d) burutazioak

34. a) miatu  
b) onartu  
c) urratu  
d) sortu

### Oharrak

- Ondoren, **bi ariketa** dituzu. **Biak egin behar dituzu.**
- Oso kontuan hartu behar dituzu gaia eta eskatzen zaizun ariketa mota.
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten: **ez da zuzenduko irakurri ezin denik.**
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Ez jarri zure izen-abizenik; **asmatu izenpea anonimotasuna bermatzeko.**
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
  - Eskatutako guztiari erantzun diozun.
  - Ideiak garbi adierazi dituzun.
  - Euskara nola erabili duzun: egokitasuna, zuzentasuna eta aberastasuna.

**ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU.  
EGIN ARIKETAK HORRETARAKO EMAN ZAIZKIZUN APARTEKO ORRIETAN.**



## 1. ariketa

Gaia kontuan hartu eta **eskutitza** idatzi behar duzu.

**Gutxienez 125 hitz** idatzi behar dituzu.

**GAIA:** Administrazioan zenbait lanpostutan aritu zara. Oraingo lanlekuan, inoiz ez bezala, arazoak dituzu bertako lankideekin. Arazoa konpontzeko, haiekin hitz egin duzu, baina ez da ezer aldatu. Lana uztea ere pentsatu duzu, baina hori egin baino lehen, arduradunari eskutitz bat idaztea erabaki duzu egoera azaltzeko eta konponbidea eskatzeko.

## 2. ariketa

Gaia kontuan hartuta, iritzia eman behar duzu herriko aldizkarian, *Herritarren txokoa* sailean.

**Gutxienez 125 hitz** idatzi behar dituzu.

**GAIA:** Herri txiki eta lasai batean bizi zara. Foru Aldundiak laster adingabekoentzako zentro bat zabaltzea erabaki du bertan. Berriak zalaparta handia sortu du herrian eta iritzi kontrajarriak daude.

Gaiaren garrantziaz jabeturik, herriko aldizkarian zure iritzia ematea erabaki duzu. Idatzi zure herrian zer gertatzen ari den, gazte horiek etortzeak zer ekar dezakeen eta eman zure iritzia.

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

**IVAP**

HERRI ARDURALARITZAREN  
EUSKAL ERAKUNDEA

■ **1. ariketa.** Aukeratu erantzuna

■ **Irakurgaia:** «ZERUKO ESTALKIRIK BERRIENAK»

1.	B	2.	C	3.	B
4.	A	5.	A	6.	C
7.	A	8.	B		

■ **2. ariketa.** Sartu testu zatia dagokion hutsunean

■ **Irakurgaia:** «AUTO ELEKTRIKOA»

Hutsunak	9	10	11	12	13	14	15	16
Testu zatiak	F	C	I	G	A	H	E	B

Soberakoa	D
-----------	---

■ **3. ariketa.** Hutsunak bete

■ **Irakurgaia:** «EMAKUMEENGANAKO ERASOAK SAIHESTEKO APLIKAZIOA»

17.	B	18.	C	19.	C
20.	A	21.	D	22.	C
23.	A	24.	B	25.	A
26.	B	27.	C	28.	A
29.	D	30.	D	31.	B
32.	D	33.	A	34.	B